

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKERA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu Nagusiaren 215/2017 Foru Dekretua, ekainaren 12koa, onartzen duena 2017-2018 ikasturtean pertsona helduen euskalduntzea sustatzeko helburuaz lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzen deialdia

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, aurrera daramatzen jardueren artean, egoki iritzi dio helduen euskalduntzea sustatzeko 2017-2018 ikasturterako laguntzen deialdia egiteari.

Proposatzen dena da dirulaguntza ematea A1, A2, B1 eta B2 mailetako 2017-2018 ikasturterako matrikulazioaren prezioa jaisteko, HABEk homologaturiko Arabako edo Trebiñuko euskaltegietan. Araban edo Trebiñun erroldaturiko adinez nagusiek jasoko dituzte dirulaguntzak.

Era berean, proposatzen du HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek eta HABEren euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek erakunde laguntzailearen izaera lortzea, hala eskatzen badute, beraiek kudeatzeko eta izapidetzeko xedapen honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko arau esparru bat ezartzea, euskara ikasten ahalegintzen diren pertsonentzako laguntzek bete beharrekoa.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak erabiliz eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Onarpena ematea helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidez emango diren eta 2017an indarrean egongo diren 2017-2018 ikasturterako dirulaguntzen deialdi publikoa, 100.000 euroz hornitua. Deialdi hori arautuko du Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak (2015eko urriaren 21eko ALHAO, 123. zk.), Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arau orokorrak onartu zituenak.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.07.78.00.480.00.01 (xedapen erreferentzia: 105.2543).

Aurrekontuan hasiera batean jasotako kopurua (100.000 euro) handitu egin ahalko da, aurrekontuko baliabide erabilgarrien arabera.

Hirugarrena. Onartzea deialdi hau arautzen duten oinarrien laugarren klausulak aipatzen dituen erakunde laguntzaileekin izenpetu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredua.

Laugarrena. Erakunde laguntzaileen alde 2017rako ezarri den konpentsazioa 4.000 eurokoa da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: "Euskara sustatzeko jarduerak" 70.1.07.78.00.480.00.01, 70-125 lerro zenbakia (xedapen erreferentzia: 105.2543). Konpentsazio hori deialdia ebatzi ondoren ordainduko da, eta kudeatu eta onartutako matrikula bakoitzeko 3 euroko konpentsazio ekonomikoa ezarri da.

Bosgarrena. Baimena ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari erakunde laguntzaileekin hitzarmenak sinatzeko.

Seigarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, bost hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik egon ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Urriaren 123 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 1. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 13 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Bederatzigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE. ERANSKINA

Eranskina

Helduen euskalduntzea sustatzeko dirulaguntzak, 2017-2018 ikasturtea: dirulaguntzak lehia bidez esleitzeko deialdia

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da 18 urtetik gorako helduen euskalduntzea sustatzea, betiere Araban eta Trebiñun erroldatuta badaude eta 2017-2018 ikasturtean Arabako euskaltegietan matrikulatzen badira; sustapen hori Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2016 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan da egitekoa, zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen esleipena arautzen duten oinarriak.

Dirulaguntza hauen helburua da A1, A2, B1 eta B2 mailetako matrikularen prezioa gutxiagotzea 2017-2018 ikasturterako, Arabako edo Trebiñuko euskaltegi HABEk homologatuetan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Emango diren laguntzen zenbatekoa, guztira, 100.000,00 eurokoa izango da; gehiago ere izan daiteke, kontuan hartuta emango diren dirulaguntzen orotarako zenbatekoa, eta, betiere, aurrekontuan baliatzeko moduan izango diren baliabideen arabera.

Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastu aurrekontuko 70.1.07.78.00.480.00.01 partidatik ordainduko da.

Hirugarrena. Pertsona onuradunak

Deialdi honetako dirulaguntzak, pertsona fisikoek eskatu ahaliko dituzte, ezaugarri hauek betetzen badituzte:

- Adin nagusikoa izatea deialdia ALHAOn argitaratzen den datarako.
- Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian erroldaturik egotea deialdia ALHAOn argitaratzen den datarako.
- A1, A2, B1 eta B2 mailetan matrikulatzea Arabako edo Trebiñuko euskaltegi HABEk homologatutako batean.

Berariaz programatik kanpo geratuko dira herri administrazioetan zerbitzu ematen duten eskatzaileak; herri administrazioek finantzatuko dute haiek euskara ikastea eta euskararako gaitzea.

Laugarrena. Erakunde laguntzaileak

1. Era berean, erakunde laguntzailearen izaera izango dute HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek eta HABEren euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek, erakunde laguntzailearen izaera izatea eskatu badute.

2. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erakunde laguntzaileek lankidetzat hitzarmen bat sinatu behar dute Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin, hau da, erakunde emailearekin. Hitzarmen horretan erakundeek beren gain hartutako baldintzak eta betebeharrak arautuko dira.

3. Erakunde laguntzaileek xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetuko dituzte.

4. Euskaltegiek erakunde laguntzailearen izaera eskatzeko duten epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Deialdian sartzen diren moduluak. Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa

Esleitu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa hiru modulutan banatzen da, ikastaroaren ordutegiaren trinkotasunaren arabera:

1. 248-400 orduko moduluak: 75,00 euro
2. 401-600 orduko moduluak: 120,00 euro
3. 601 ordu baino gehiagoko moduluak: 240,00 euro

Eskabide kopurua eta esleitu beharreko zenbatekoak direla-eta, eman beharreko dirulaguntzen zenbateko osoak gainditu egiten badu deialdiaren diru hornidura, eta hori dela-eta beharrezkoa bada dirulaguntzen zenbatekoak murriztea, dirulaguntzak proportzio berean murriztuko zaizkie dirulaguntzen pertsona onuradun guztiei.

Seigarrena. Organo eskuduna

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Zazpigarrena. Eskatzaileek aurkeztu beharko dituzten agiriak

Matrikulatzeko orduan, eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte euskaltegian:

- Dirulaguntzen eskaera inprimaki normalizatuan. Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango du, edo, bestela, dagokion web orritik jaitsi ahal izango da www.araba.eus edo www.euskaraba.eus

- Eskatzailearen NANaren fotokopia edo pasaportearen.

- Trebiñuko konderrian erroldatutako eskatzaileek erroldatze zedula aurkezturik eduki beharko dute deialdia ALHAOn argitaratzen den egunerako.

Zortzigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Onuraduna Arabako edo Trebiñuko euskaltegi homologatu batean matrikulatu beharko da, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik 2017ko irailaren 29era bitarteko epean (biak barne).

Matrikulatzeko orduan, euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio modulu bakoitzari, onuradunetz onuradun.

Onuradunak, euskaltegian matrikulatzeko orduan, inprimaki orria beteko du, deialdia arautuko duten oinarriak onartzearekin argitaratuko dena.

Bederatzigarrena. Eskabideak aztertu eta ebaztea

1. Dirulaguntzak aztertu eta eman edo ukatuko dira euskaltegiek aurreko paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztu ahala, eta, betiere, haiek aurkezteko epea amaitu eta gero.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientearen atzeratzea, bai eta artxibatzea ere.

Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

2. Organo eskudunak ebazpena emango du 2017ko abenduaren 29a baino lehen, Euskararen Foru Zerbitzuak hala eskatuta. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

3. Esleipen ebazpenean zer eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berriaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratze horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu.

5. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 46k1 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 13 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamargarrena. Dirulaguntzak ordaintzea

Nola laguntza den matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat, erakunde laguntzaileei ordainduko zaizkie dirulaguntzak, ikastegi bakoitzean matrikulatutako onuradunen kopuruaren arabera.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik izanez gero, eta honako hauekin batera beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratuz gero erakunde publiko edo pribatu batek emanik, gerta liteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena aldatzea, are dirulaguntzak itzuli beharra ere.

Hamabigarrena. Dirulaguntza galtzea

Gerta liteke onuradunak deialdi honetan esleitu zaion dirulaguntza galtzea, espedientea abiarazi ondoren, datuak doloz eman gabe uzteagatik edo datuak faltsutzeagatik aurkeztutako eskabidean edo agirietan, edo oinarri hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Oinarri hauetan zehaztutako betebeharren bat ez betetzeak berarekin ekarriko du laguntza berriro aztertzea, eta, hala balegokio, laguntza baliogabetzea edo esleitutako diru zenbatekoa itzuli behar izatea.

Halaber, esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezarritako kasuetan.

Espedientearen ondorioz dirulaguntza galtzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den araudian ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

Onartutako laguntzaren kontura jasotako diru zenbatekoak itzuli beharra gertatuz gero, diru sarrera publikotzat joko dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauaren II. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira (53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa).

Hamahirugarrena. Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak egoki iritzi adina ebazpen emango ditu deialdi hau garatzeko, eta, halaber, dirulaguntzaren zenbatekoa gehitzeko ebazpena ere emango du, beharrezkoa izanez gero; bestalde, akzioak baliatu ahal izango ditu galdatzearen eta egiaztatzearen datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa bete dela. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatzen duten informazioa ere eman beharko dute.

Hamalagarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, Aldundi honetako Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebaziko du.

Hamabosgarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

Hamaseigarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio hedabideetan.

Hamazazpigarrena. Errekurtsoak

Deialdi hau zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza oro inpugna daiteke, 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

Hemezortzigarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak; abenduaren 18ko 53/1992

Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuen ekonomia araubidearena; aurrekontua gauzatzeko indarrean dagoen foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoa; 4/2005 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerakoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

Euskara, kultura eta kirol sailaren eta arabako euskaltegien arteko lankidetzaren hitzarmena, helduen euskalduntzea sustatzeko bideratutako 2017-2018 ikasturteko laguntzak kudeatzeko

Gasteiz, 2017ko aren(a).

Parte hartzen dutenak

Alde batetik, Igone Martínez de Luna Unanue andrea, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, zeina izendatu baitzen Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren bidez (ALHAOren 79. zenbakia, 2015eko uztailaren 6koa), eta zeinak jarduten baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, esleitzen dizkion ahalmenen bertutez.

Bestetik, jauna/andrea,-en legezko ordezkaria,-k emandako boterearen arabera.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote eskumena eta gaitasuna daukatela hitzarmen hau sinatzeko, eta horregatik,

Adierazten dute

1. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak euskara sustatzeko hainbat ekintza eta programa bultzatzen ditu, neurriak jarritz laguntzeko euskara ikasten ahalegintzen diren pertsonen.

2. Diputatu Nagusiaren ekainaren 12ko 215/2017 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zaio helduen euskalduntzea sustatzera bideratutako 2017-2018 ikasturteko dirulaguntzak lehia bidez emateko deialdi publikoari, zeinaren xedea baita bultzatzea Araban edo Trebiñun errolatuta dauden eta 2017-2018 ikasturtean Arabako euskaltegietan matrikulatzen diren 18 urtetik gorako pertsonen euskalduntzea, eta prozeduraren organo instrukzio egilea Euskara, Kultura eta Kirol Saila izango da.

3. Deialdi horren laugarren klausulak jasotzen duenez, aukera dago lanean aritzeko erakunde laguntzaileekin, xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.

4. Kontuan izan behar da, ikasle onuradunak matrikulatuta dauden euskaltegiak direla eskaerak eraginkorren kudeatu eta izapidetu ditzaketanak.

5. Horregatik guztiagatik, bi aldeek sinatzea erabakitzen dute, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ondoko klausula hauek arautuko duten hitzarmen hau:

Klausulak

Lehenengoa. Hitzarmen honek nahi duena da ezartzea Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eta euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmena bideratzeko modua, helduen euskalduntzea sustatzera bideratutako 2017-2018 ikasturteko dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

2017-2018 ikasturteari dagozkion laguntzak eta hitzarmenaren indarraldian eman ahalko direnak kudeatzeko ere izango da lankidetzaren.

Bigarrena. Erakunde laguntzailearen betekizuna izango da kudeatu eta izapidetzea Diputatu Nagusiaren 215/2017 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak, eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren kontura jardungo du.

Hirugarrena. Euskaltegi bakoitzak 2017ko urriaren 21era arte izango du epea, ikastegian bete diren eta laguntza honen xede den deskontua aplikatu zaien eskaera guztien zerrenda ziurtatua aurkezteko.

Laugarrena. Nola laguntza den matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat, erakunde laguntzaileei ordainduko zaizkie dirulaguntzak, ikastegi bakoitzean matrikulatutako onuradunen kopuruaren arabera, behin deialdia ebatzi eta gero.

Bosgarrena. Erakunde laguntzailearen alde 3 euroko konpentsazioa ezartzen da, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.

Seigarrena. Erakunde laguntzaileak bete egin beharko du urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 11., 12., eta 14. artikuluetan ezarritakoa; baita Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak (ALHAOren 123. zenbakian, 2015eko urriaren 21ekoan, argitaratuta) ezarritakoa ere, zeinak onartu baitzituen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia bidez esleitzen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokorrak.

Zazpigarrena. Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araua betetzeko betebeharra ezartzen diote elkarri, azkenean dirulaguntza jasoko duten onuradunetatik lortutako datuei dagokienez, eta eskatu beharreko baimen guztiak eskatuko dizkiete haiei, datuok erabiltzeko.


Zortzigarrena. Hitzarmen honek gehienez ere lau urte iraungo du sinatzen denetik, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezarritakoarekin bat etorri luzatu ahalko da modu automatikoan, baina hitzarmenak ezin izango du, guztira, sei urte baino gehiago iraun, nahiz eta oinarrien ebazpenak aldatu edo aurreikusi oinarririk ez egotea ekitaldi jakin baterako.

Indarraldia eten egingo da, baldin eta ez bada deialdirik egiten ekitaldiren batean.

Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira aldeek hala erabakita; halaber, aldeetatik edozeinek denuntziatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hori eginez gero, bi aldeek hitzarmenaren dute beren konpromisoei eutsiko dietela, harik eta onuradunei emandako laguntzen aldi osoa amaitu arte.

Bederatzigarrena. Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa izango dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Eta ados daudela adierazteko, bi alderdiek hitzarmen honen bi kopia sinatzen dituzte, ondorio bakarra izan ditzaten, agiriaren hasieran zehaztutako leku-egunetan.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p>Helduen euskalduntzea sustatzeko 2017-2018 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.</p> <p>2017</p> <p>Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2017-2018</p>
--	---

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ERANSKINA ■ ANEXO

Eskara zk. ■ N° Solicitud

Administrazioak betetzeko

A cumplimentar por la Administración

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN
DNI AIZ
NIE Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea
Mujer Gizona
Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Berariaz baimena ematen dut Arabako Foru Aldundiak dagokion euskaltegiari ebazpen laguntzaren zenbatekoa jakinarazi diezaion, baldin eta egikaritze prozeduraren baten ondorioz atxikiturik geratuko balitz. ■ Manifiesto mi consentimiento expreso a que en caso de que el importe de la ayuda concedida sea retenido como consecuencia de procedimientos ejecutivos, la Diputación Foral de Alava comunique al euskaltegi correspondiente tal circunstancia con indicación del importe retenido.

Euskaltegia

Ikastaroren ordu kopurua guztira Número total de horas del curso

248-400

401-600

> 600

Hasiera maila Nivel inicial

A1

A2

B1

B2

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

 NAN edo pasaportearen fotokopia ■ Fotocopia del D.N.I. o pasaporte Trebiñuko Konderriko errolda agiriaren fotokopia 2017an eguneratua ■ Fotocopia de la cédula de empadronamiento actualizada en 2017 en el Condado de Treviño

OHARRA ■ NOTA

Matrikulazioarekin batera, inprimaki orria bete behar da eta euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio matrikulazio prezioari. Eskara Aldundiari bideratuko zaio, eta Aldundiak eskaerak ebatziko eta jakinaraziko dizkio bakoitzari. ■ Junto con la matrícula, es necesario rellenar el impreso de solicitud. El euskaltegi aplicará el descuento correspondiente al precio de la matrícula. La solicitud se tramitará a la Diputación Foral de Alava, donde se resolverá y notificará a cada persona beneficiaria la resolución sobre su solicitud.

Orria ■ Hoja 1/2



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko 2017-2018 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.

2017

Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2017-2018

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ERANSKINA ■ ANEXO

Oharra (1)

Datu Pertsonalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontrara egiteko, datuaren sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezereztzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteluz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, [posta elektronikoa](#) [bakarraren helbidea](#) (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordetzatzen dudun erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarteak ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritu.

BIGARRENA.- Ez ni, ez ordetzatzen dudun erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalaren ez administrazioaren, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloaren xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako errekiamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa beteazeko eskatzen duten egintza administrazio edo judicial baten aurrean, halien aurkako jarreta dakarten enpresabururen erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzeko dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena normahi dela ere, baldin eta enpresaburuk, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik egiteko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badio. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una [dirección de correo electrónico única](#) (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los [procedimientos](#) que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionados penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo.
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo.
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma.
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo.
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

Orria ■ Hoja 2/2